

HERRITARREN PARTE HARTZEA

LEGARREKO AUZO BILERA

FECHA 21/10/2014

Id. Proposamena Saila	LABURPENEA	ERANTZUNA
Udaltzaingoa	Itziotik Arratebidera debekatutako noranzkoan jaisten diren ibilgailuak hobeto kontrolatzea eskatu du.	Arratebideko zirkulazioa goitik beherakoa izan dadin hemendik denbora gutxi barru egingo diren lanek konponbidea emango diote arazo honi.
Udaltzaingoa	Arratebideko seinalizazioa indartzea eskatu du.	Behin betiko seinaleak datozen asteetan jarriko dira, Legarreko auzoko bizilagunek egin duten aukeraketa gauzatzuz, hau da: Arratebide kalean trafikoa goitik behera izatea.
Obrak	Argibideak eskatu du Arratebide 12tik Itziora eraikiko den espaloiarengatik inguruan.	Amañan trenbidearen desdoblamentu obrarekin batera egin da. Hobetu egingo da.
Obrak	Auzoko andre batek Vildosolaneko eskailera mekanikoa eraikitzea eskatu du.	Sarbide bi jarriko dira, pasealekua auzoaren sarbidearekin elkartuta, horretarako zati baten eskailera mekanikoak jarriko dira eta Arratebidearekin igogailu bidez elkartuta.
Obrak	Legarre kaleko 8an –Pentsiodunen Egoitzaren ondoandauden garajeetara ura sartzen delako kexatu da.	Titulartasun pribatuko garajeak dira eta % 25a Udalarena da garaje gainean dagoen frontoiagatik. Administrazioarekin elkartuta, dilatazio-juntura konpontzea erabaki zen, ura hortik sartzen baitzen. Udalak ordaindu zuen zegoen zatia.
Obrak	Mekola kaleko 6are ostetik Ardantzako igogailuaren artean dagoen lurzorua konpontzea eskatu dute. Baieztatu dute egoera txarrean aurkitzen dela.	Asfaltatze-lana ETSek trenbidea desdoblazteko ezarritako eritimoaren arabera egingo dira. Lan horiek errepidea apurtzea eskatzen dutenez, asfaltatze-lan hori ETSren obrak amaitu ondoren egingo dira.
Obrak	Mekola kalea estuegia delako kexatu dira, hain zuzen ere Ardantzatik Arratebidera.	Mekola urbanizatzeko proiektu bat ari gara lantzen, baina epe ertainera alde hartan ez dago ezer egiteko asmorik.
Obrak	Milafloreseko auzotarrek alde hura asfaltatzea eskatu dute.	Aste honetan zehar egingo da.
Zerbitzuak	Trenak Legarreko barrenean dauden biraguneetan ateratzen duen zaratagatik kexatu egin dira.	Euskotreni trenbidean ura botatzeko eskaera egin zitzaion gurpilek ateratzen duten zarata leuntzearen. Berrito ere lan hori egiteko premia dagoela azpimarratuko diegu.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

LEGARREKO AUZO BILERA

FECHA 21/10/2014

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERANTZUNA
Hirigintza	Auzoko andre bat kexatu egin da, sarbideak ez daudela ondo planifikatuta eta igogailu bat falta dela handik gertu.	Inguru haren ezaugarriengatik ezinezkoa da etxebizitza guztien irisgarritasuna bermatzea. Igogailuak jartzen direnean beti kontuan hartzen dena hauxe da: gutxienez 50 etxebizitzari eman behar diela zerbitzua.
Zerbitzuak	Arratebideko 15aren ostean, Arratebide pareko errepidearen aldera, horman kontran dagoen piku-arbola bat inaustea edo kentzea eskatu du.	Piku-arbola hura bota zen.
Zerbitzuak	Arratebide 15eko kupritsa eta zikinkeria garbitzea eskatu du.	<i>Falch</i> -a pasatu zen hura garbitzeko, kupritsa eta zikinkeria kentzeko.
Zerbitzuak	Arratebide 15aren parean dauden loreontziak hobeto zaintzea eskatu du.	Loreontzi horiek behar diren moduan mantentzeko lanak egin dira.
Zerbitzuak	Legarregaineko parkearen barandak duen egoera txarrak umeentzat duen arriskuaz kexatu da.	Leku hura nola dagoen aztertu eta ondorio honetara iritsi gara: hango arazoa ez dela barandaren egoera txarra, umeak baranda gainera igotzea dela arazoa. Horregatik, umeak barandara ez daitezzen igo, han falta diren arbolak sartzea pentsatu da. Datozen hilabeteotan egingo da lan hori.
Zerbitzuak	Oinezkoen pasabidean, Arratebide 13aren parean, sakangunea eskatu du.	Oinezkoen pasabide goratu bat eraikiko da Arratebideko espaloiairean obrak egitean.
Udaltzaingoa	Itzioko auzotar bat kexatu egin da Taxibusaren azkeneko zerbitzua kentzeagatik.	Zerbitzua kendu bazen eskaririk ez zegoelako izan zen.
Udaltzaingoa	Pertsona bat kexatu egin da asteburuetan, batik bat gauez, Mekola eta San Juan kaleen artean egiten diren botiloiak direla-eta .	Udaltzaingoko agenteak deitu zaien guztietan edo salaketaren bat jaso izan dutenean joan dira, egiten diren botiloi guztien kontrola eramatea ezinezkoa delako. Kontrol gehiago jarriko dira datozen hilabeteetan.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

LEGARREKO AUZO BILERA

FECHA 21/10/2014

Id. Proposamena Saila	LABURPENEA	ERANTZUNA
Udaltzaingoa	Mekola aldetik anbulantziek sartzeko arazoak dituztela aipatu dute.	Mekola kalean anbulantziaren batek arazoak izan dituela eta ez da inon horren berririk jaso. Kale estua da, baina abiadura mantsoan anbulantziak pasatzen dira. Gaur egun Arratebidera ematen duen sarbideak maniobrak egitea eskatzen du baina hori egin ahal da.
Udaltzaingoa	Arratebide kaleko 17B garajeetako irteera parean dagoen oinezkoen pasabidean abiadura-murriztaileak eskatu dituzte.	Legarreko auzotarrek Arratebideko zirkulazioaren noranzkoa goitik beherakoa izatea erabaki dutenez –inkesta bat eginez— ; lekua behar bezala preparatu, seinale berriak jarri eta beste lan batzuk egin ondoren, oinezkoen pasabide goratuak jartzeko aukerarik dagoen aztertuko da.
Udaltzaingoa	Miraflores auzokoak kexatu egin dira Udaltzaingoa gutxitan azaltzen delako.	Eguneko txanda bakoitzean, egunean behin behintzat Miraflores kaletik pasatzen dira.
Zerbitzuak	Legarregain aldean edukiontzi gehiago jartzeko eskaera egin dute edo bilketa sarriago egitea, etxebizitza berriak egin direnetik han dauden edukiontziak gutxi direlako.	Legarregaineko etxebizitza berriak okupatzen joan ahala, hondakin solidoen eta organikoen edukiontzi bana jarri ziren urbanizazio berriaren parean. Zaborren gaikako bilketa egiteko, Legarregain 9aren parean dute oso-osorik jarrita. Hura jarri zenetik, auzoko jendeak ez du inongo kexarik sartu.
Zerbitzuak	Auzoko andre batek Legarregain kaleko 9an, dorrearen parean, dauden arbolak inaustea eskatu du.	Zuhaitz haiek otsailean inausi ziren.
Zerbitzuak	Eskailera mekanikoen funtzionamenduak akatsak dituela adierazi dute.	Legarreko eskailerak ez dira ondo ibili harmailetakote kateen egoera txarragatik. Horregatik joan gara kate haiek pixkanaka aldatzen (Legarre 2: 2014ko apirilean; Legarre 3 eta 1: 2014ko urrian; Legarre 4: 2015eko urtarrilean). Orduetik hona eskailerek ondo funtzionatu izan dute.
Zerbitzuak	Mekola kaleko 6an, eskailerak solte daudela-eta, kexatu egin dira.	Horri zegozkion lanak uztailean egin ziren.

## HERRITARREN PARTE HARTZEA

LEGARREKO AUZO BILERA

FECHA 21/10/2014

Id. Proposamena Saila	LABURPENEA	ERANTZUNA
Zerbitzuak	Abontzabide 4ko andre batek etxetik gertu dauden arbolak inautsea eskatu du.	Abontzabide 4tik gertu dauden arbolen inausketa neguan egin zen.
Zerbitzuak	Inguru hura gehiago garbitzea eskatu dute, txakur kakekin zikina dagoelako.	Asteko sei egunetan egiten da garbiketa
Zerbitzuak	Argia ez dela behar adinakoa esan dute.	Inguruaren argiaren intentsitateak Kanpoko Argiteriaren Energia Efizientziaren Erregelamenduak (RD 1980/2008) dioena betetzen du, zonalde horretan baxua behar duela ezartzen duena. Argi gutxiegi dagoenaren pertzepzioa udalerriko beste inguru batzuetan dagoenarekin konparaketa egitetik etor daiteke.
Zerbitzuak	Vildosolaneko txaletaren eskaileretan sasiak eta sastrakak daudela esan du auzoko andre batek.	Eskailera haiek uztailean garbitu ziren.
Zerbitzuak	Ardantzatik Mekola 8 alderako igogailuaren aldean argia ez dela behar bestekoa salatu dute.	Inguruaren argiaren intentsitateak Kanpoko Argiteriaren Energia Efizientziaren Erregelamenduak (RD 1980/2008) dioena betetzen du. Argi gutxiegi dagoenaren pertzepzioa udalerriko beste inguru batzuetan dagoenarekin konparaketa egitetik etor daiteke.
Zerbitzuak	Legarregaineko jai Batzordearen ordezkariak beraien haserreaz azaldu dute Udalak jaiak egiteko utzitako materialengatik laga zuten fidantza ez itzultzeagatik.	Egindako kalteak balioesteko txostena egin zen, mahai tolesgarri bi desagertu zirelako, eta horretan egindako kaltea 130,68 eurokoa izan zelako. Edozelan ere, irizpideak berraztertu egin dira eta jaietako eta bide publikoa okupatzeko edo hartzeko Ordenantza bat egiteko lanean ari gara.
Zerbitzuak	Legarregain 18-20ko andre batek etxeetatik gertu dagoen kupritsa garbitzea eskatu du.	<i>Falch</i> -a pasatu da.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

LEGARREKO AUZO BILERA

FECHA 21/10/2014

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERANTZUNA
Zerbitzuak	Mirafloreseko auzotarrek alde hura gehiago garbitzea eskatu dute.	Menkomunitateari idatzi bat bidali zitzaion inguru hartako garbiketa sakonagoa izan dadin.
Zerbitzuak	Edateko uraren hodiaren kokapenez kexatu dira, azalean dagoelako jarrita, eta udan, ura beroa ateratzen da eta neguan kostatu egiten zaio berotzea.	Hodia barnerago edo sakonago edo azalerago jartzeak ez dauka inongo zerikusirik uraren hotz-beroan.
Zerbitzuak	Itzio eta Miraflores inguruak bertan behera utzita daudela kexatu dira.	Abuztuan egin zen Itzio eta Miraflores aldeko sastraka-garbitzea.
Zerbitzuak	Auzotar batek esan du Arratebideko 17Bko parkean euri-ura jasotzeko sarexka bi apurtuta daudela, musikoen lokalaren gainean.	2014ko urriaren konpondu ziren sarexka haiek.
Zerbitzuak	Itzioko batek ur beltzak daudela eta saneamenduak akatsak dituela azaldu du.	Gipuzkoako Urak-i abisua pasatu eta arazoa konpondu zen.
Zerbitzuak	Eserleku bi jartzea eskatu dute, bata Legarregain 22aren aldamenean, eta bestea, etxe berrien parean.	Gainontzeko bizilagunak ados dauden jakin behar dugu. Auziozainarekin ikuskatu da lekua eta ez legoke arazorik, baina pegoraren hurrengo bileran eskaera egitea eskatu zitzaion bizilagunari eta, horren arabera, bizilagunen gehiengoaren adostasuna agertzen duen idatzia aurkeztea.
Zerbitzuak	Legarregain kaleko 11n dauden etxe berrietako lorategiak konpontzea eskatu dute.	Lorategi horiek konpondu ziren.
Zerbitzuak	Auzoko estetika hobetzea eskatu dute, farolak diferenteak direlako.	Gaur egun, ez dago aurreikusita estetika hobetzeko faroletan aldaketak egitea. Zonalde berrian farolak jarri dira eta auzoaren gainontzeko tokietan garai aproposenean jarriko dira. Orain, ez da lehentasunezko lantzat hartzen.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

LEGARREKO AUZO BILERA

FECHA 21/10/2014

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERANTZUNA
Zerbitzuak	Mirafloreseko auzotarrek kexatu egin dira inguru hartako saneamenduak ematen dituen arazoak direla eta.	Mankomunitateak hiru hilero garbitzen ditu Mirafloresen euri-urak jasotzeko hustubideak. Arratebideren kasuan Gipuzkoako Urak-i abisua pasatu zitzaion eta arazoa konpondu zen.
Zerbitzuak	Mirafloreseko bizilagunek sasi-garbiketa gehiago egitea eskatu dute.	2015ko abuztuan garbitu zen alde hura.
Zerbitzuak	Mirafloreseko bizilagunek antenen arazoaz kexatu dira.	Bizilagunei azaldu zitzaien bezala, antenen arazoa partikularra da, beraz, beraiei dagokie arazoa konpontzea.
Hirigintza	Informazioa eskatu dute Mekolan, Vildosolaneko txaletean, egingo denaz.	Udaberrian birpartzelazioa onartu zen; ugazabekin Hitzarmena oraindik izenpetzeke dago. Hori egin ondoren txaleta bota genezake, proiektu hori eginda eta aurrekontuarekin baitago. Txaleta bota ondoren irisgarritasun aldetik hobekuntza-obrak egin ahal izango dira, eta aisialdirako leku bat jartzea ere izango da. Inguru hura eraldatzeko prozesuan zeresan handia izango dute bertako bizilagunek, haien parte-hartzeak, antolamendu berriak bertako jendearen premiak eta nahiak bete ditzan.